



OSASUN PUBLIKOKO HEZKUNTZA-KANPAINA BAT DISEINA EZAZU

Helburuak

- Esku Garbiketaren Eguna ospatzea.
- Sormena sustatzea eta adierazpen-gaitasun plastikoa garatzen laguntzea, parte hartzeko eta adierazpen askatasunerako eskubideak bultzatuz.
- Gure eskuetan izan ditzakegun germenaren eta sor ditzaketen gaixotasunen inguruko ezagutza sendotzea, gure inguruan zein mundu osoan zehar.
- 6. Garapen Iraunkorrerako Helburuaren (edateko ura eta saneamendua) aldeko TANTAK eskola-kanpaina bultzatzea.

Beharko diren materialak

- “Bilatzen da: Koronabirus” kartela.
- “Germen bilatuenak”, ikasgelarako aurkezpena.
- Kartelak sortzeko materiala, ohiko tekniken (pintura, collage...) zein teknika digitalen bitartez.

Osasun publikoko kanpainak; zer dira?

Osasuna sustatzeko ekimenen atal garrantzitsuenetako bat da gaixotasunen eta ohitura osasuntsuen inguruko informazioa eta gomendioak ematea biztanleei. Horretarako, gobernuak eta erakundeek bizitza osasuntsu bat izateko, gaixotasunen aurrean norbere burua babesteko edo osasun-larrialdi baten aurrean ekiteko egin beharrekoak azaltzea xede duten komunikazio-kanpainak sustatzen dituzte. Osasun-kanpaina bat estrategia batean oinarritzen da eta estrategia horrek, bilatzen den xedea (“esku garbiketaren garrantzia zabaltea”, esaterako) eta jomuga duen biztanleria (15 eta 25 urte bitarteko gazteak, adibidez) aintzat hartu ostean, mezu, hedapen-kanal (irradi, telebista, sare sozialak...) eta komunikazio-formatu (elkarriketa, spot, kartel, eskuliburu...) zehatz batzuk zehaztuko ditu. **Jarduera honi esker, osasun publikoko kanpainen funtzionamendua eta aipatuen eraginkortasuna bermatuko duten alderdiak ezagutuko ditugu.**

Garapena


Jarduerarekin hasi aurretik, “Bilatzen da: Koronabirus” kartela jarriko da ikasgelan eta eskolan SARS-Cov-2 birusari aurre egiteko hartu beharreko neurriak zabaldu eta gogoratzeko. Ikasgela, korridore, komuna eta igarotze-gunetan jar daiteke ikasturte hasieratik eta, halaber, sare sozialetan zein eskolak familiei bidaltzen dizkien jakinarazpenetan ere parteka daiteke.

1. fasea: Dokumentazioa

Osasun-kanpaina bat abiarazteko, konpondu nahi dugun arazoari buruz eskuragarri dagoen informazioa bildu beharko dugu aldeztu aurretik.

Ikasgelarako aurkezpena gaia aurkezteko erabil dezakegu: gure eskuetan aurki ditzakegun patogenoetako zenbait ezagutuko ditugu. Diapositibetan jasotako informazioa oinarritzeko da; datuetan sakontzea gomendatzen da, taldearen heldutasuna eta ezagutzak aintzat hartuz. Aurkezpena eta gero, solasaldi bat antola daiteke higiearen eta germen horiek sortzen dituzten gaixotasunak ekiditeko prebentzio neurri ezberdinen garrantzia nabarmentzeko. Hona hemen solasaldia gidatzeko galdera batzuk:

- Ezagutzen al genituen mikroorganismo horiek? Zer sentitu dugu beren existentziaz jakitean?
- Prebentzio neurriak, errazak al dira? Gure inguruko pertsona guztien eskura al daude? Eta munduko pertsona guztien eskura?
- Zer nolako eragina izan dezake gaixotasun hauetako bat izateak: Gaixoarentzat? Bere familiarentzat? Gizartearentzat?



- Gaixotasun horietako zenbaitek epe luzerako ondorenak dituzte. Gaixotasun baten ondorioz bizitza osorako ondorenak izateak zer esan nahi duen ulertzen al dugu? Zer esan nahi du horrek norbanako batentzat eta bere ingurukoentzat? Eta gizartearentzat?
- Norbere burua gaixotasunen aurrean babestu ahal izateko gaixotasunak ezagutu beharra dago, bai eta horien aurreko prebentzio neurriak ere (higie, txerto, portaerak, etab.). Jendea informatzeko modurik onuratsuenak al zaizku? Zer egin beharko litzateke munduko haur eta nerabe guztien osasunerako eskubidea bermatzeko eta beraientzat hain garrantzitsuak diren higie eta prebentzioko gaien inguruko informazioa jaso dezaten?

Taldearen ezagutza- eta heldutasun-mailaren, bai eta bere inplikazioaren arabera, interesgarria litzateke arazoak ikertzeko lehen fase hau luzatzea: datuak bilduz inkesten edo landa-azterketen bitartez, portaerak aztertuz edo bibliografia kontsultatuz... Zenbat eta gehiago sakondu fase honetan, are eta prestatuago egongo dira hurrengorako eta, horrez gain, abagune bikaina izan daiteke gizarte zientzietako zenbait ikerketa-teknika ezagutzen hasteko.

2. fasea: Kanpaina diseinatzea

Jardueraren bigarren zatian, aztertutako patogenoen inguruko informazio-educaren bat sortuko da. "Bilatzen da" kartela eredu gisa har daiteke. Diseinatzen hasi aurretik, zenbait alderdi hartu beharko dira kontuan:

- Nori zuzendua dago? Nola egoki mezu hori pertsona horietara?
- Zer nolako informazioa dugu eskura? Gauza gehiago jakin behar al ditugu besteak informatu ahal izateko?
- Zein da jendeak ezagutu behar duen informaziorik garrantzitsuen bere burua patogeno horren aurrean babesteko? Lehenetsi beharreko informazioaren bat ba al dago?
- Zein da erabili nahi dugun formatua? Kartel bat? Eskuliburu bat? Animatutako GIF bat? Mezuak erakargarri izan behar du eta gure publikoak ulertu beharko du. Nola uztartu bi alderdi horiek?
- Nola zabalduko dugu? Nola lortuko dugu ahalik eta jende gehiengana irits dadin?

Ondokoa, fase honetan ikasi beharreko alderdi garrantzitsu bat da: kanpaina arrakastatsuak lortzeko, ederrak edo txundigarriak egin baino, estrategian planteaturiko helburuetara egokitu beharko ditugu, jendearenganaino iristeko eta biztanlerian portaera positiboak bultzatzeko duten gaitasuna bermatu beharko dugu.

3. fasea (hautazkoa): Ebaluazioa

Kanpaina gure eskolan martxan jarritz gero, ebaluazio txiki bat gauza dezakegu kanpainaren eragina neurtzeko. Adibidez: kanpaina hasi baino lehen hezkuntza fisikoko eskola edo jolas-ordua eta gero eskuak garbitzen ez dituzten ikasleen portzentajea jakingo bagenu eta portaera hori aldatu nahiko bagenu, datu hori kanpaina amaitu eta gero neur dezakegu, hobekuntzaren bat egon den ala ez ikusteko.

Gure ekintzak ebaluatzeak prozesuaz hobeto ikasteko eta hurrengo baterako hobetzeko aukera emango digu.

TANTAK, #UNICEFtantak HIGIENEAREN ALDE

#UNICEFTantak ekimena ezagutu eta eskolatik nola parte har dezakezen jakiteko, ikus: www.unicef.es/eus/educa/tantak



Jarduera hau egoki daiteke, #UNICEFTantak kanpainaren alde gure eskolak abian duen kanpainaren baitan txertatzeko. Ura, higiene eta saneamenduaren garrantzia ezagutzea berebiziko garrantzia duen alderdi bat da Garapen Iraunkorrerako Helburuak 6. Helburua lortu ahal izateko.

Ikaskuntza taula

EZAGUTZAK

- Ohitura osasuntsuak gaixotasunak prebenitzeko.
- Osasuna eta gaixotasuna.
- Mikroorganismoak.

JARRERAK

- Bizitzeko era osasuntsua.
- Higiene neurriak barneratzea.
- Pertsona guztiek duten osasunerako eskubidea defendatzea.
- Adierazpen askatasuna erabiltzea beste eskubide batzuk zabaldu eta babesteko xedearekin.
- Talde-lana, guztien ongia lortu ahal izateko.
- Enpatia eta beste pertsona batzuen egoerarekiko elkartasuna.
- Banakako eta taldekako erantzukizuna osasuna babestu eta epidemiak eta izurriak prebenitzeko.

GAITASUNAK

- Proiektuak gauzatzea.
- Informazio-iturriak erabiltzea.
- Banakako eta taldekako lana.
- Autonomia pertsonala.
- Komunikatzeko eta informazioa aurkezteko trebetasunak.

Haurren eta biztanleria globalaren zein eskubide lantzen ditu jarduera honek?

- Osasunerako eta higieneari eta osasunari loturiko prebentzio- eta hezkuntza-zaintzak jasotzeko eskubidea.
- Hezkuntzarako eskubidea eta haurren gaitasun gorenen garapenean duen papera.
- Parte hartzeko, informazio egokia eskuratzeko eta era guztietako gaien inguruko ideiak eta informazioak bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea.
- Garapenerako eskubidea.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak, edateko urari eta saneamenduari buruzko 6.a, gehienbat.

urr-15
ESKU GARBIKETAREN
EGUNA